

## KONTROL MOZIOA

### **HIRIKO JOLAS-PARKEEN MANTENIMENDU ETA BERRITZE LANAK DIRELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Urte hasieratik, oposizioan gauden udal talde guztiok Erdigunetik urrun dauden jolas-parkeen mantenimenduaren inguruko proposamenak aurkeztu ditugu batzorde zein udalbatzarretan.

Kasu gehienetan, ekimen hauek auzotarren eskaerei lotuta aurkeztu ditugu. Esate baterako, gure taldeak aurkeztu dituen proposamenen artean honako hauek daude: jolas egokituak hiriko parkeetan jartzeko iradokizuna, Abegi Etxearen alboko parkea hobetzeko kontrol mozioa, Artxipi parkea konpontzeko kontrol mozioa, Behe Nafarroako parkeko pabimentua konpontzeko iradokizuna eta abar.

Hilabete hauetan ikusi dugu, kasu batzuetan, Udal Gobernuak oposizioko alderdiek aurkeztutako proposamen hauek babestu eta gauzatzen dituela (nahiz eta gero konponketak luzatzen diren), baina beste batzuetan ez dituela gauzatzen: Abegi Etxearen alboko parkearen berrikuntza, esaterako, aho-batez onartu zen apirileko zein uztaileko udalbatzarretan talde honen kontrol mozio baten ondorioz, baina oraindik ez da berritu.

Faltan botatzen dugu hiriko jolas-parkeak konpontzeko lehentasunen zerrenda bat eta, aurrekontua mugatua dela jakin badakigunez, konponketak egin behar diren edo ez erabakitzeko irizpide zehatzen definizioa ere bai.

Hori dela eta, azaroko batzordeetan delegatua interpelatu genuen honen inguruan eta hark erantzun zuen zaila zela plangintza bat egitea. Bestetik, adierazi zigun Alderdi Ederreko parkearen berritze lanak kudeaketa aldetik lan handia suposatu duela eta departamenduan horrekin lanpetuta ibili direla (16 proiektu aztertu behar izan dituztelako).

Gainera, 2018ko aurrekontuari begira, 400.000 euroko diru-kopurua jarri du Udal Gobernuak parkeak berritu eta konpontzeko. Aurreko urteetako exekuzioa aztertuta, 2016 eta 2017ko partidak oraindik ez direla exekutatu ondorioztatu dugu (parkeak zein gomazko zorua konpontzeko).

Alde batetik, auzoetako bizilagunek zein alderdiek parkeen inguruan aurkezten ditugun proposamenak kontuan izanda eta, bestetik, dirua egon badagoela, ezin dugu ulertu zer dela eta ez den jolas-parke guztien azterketa bat egiten konponketa egutegi batean lehentasunak finkatu ahal izateko.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako jolas-parkeen azterketa bat egin dezala, alde batetik, parkeetan dauden konponketa eta berrikuntza beharrak detektatzeko eta, bestetik, lehentasun zerrenda bat zehazteko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehentasun zerrenda hori egiten duenean, Udalbatzako taldeekin zein auzo elkarrekin parteka dezala.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzi